

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Startinnova izeneko proiektua ekintzaile baten errotik, enpresa berri bat sortzeko aukera izan dugu. Hori dela eta, hainbat pausu emanaz, gutxinaka ideia batetik osatutako enpresa bat sortu dugu. Hasieran, ideia berri sorta batetik bat bakarrari heldu, eta hau garatzen hasi ginen. Honi esker, aurreikuspen bat egin eta garapenari eutsi genion. Hori dela eta, enpresa bat sortu ahal izateko bete behar diren pausu, konpromezu, arazo guztiak ikusi genituen. Horrez gain, gure abileziak aprobetxatu eta gure alde txarrak kontrolatzen ikasi dugu. Enpresa bat nola sortu ikasteaz gain, gure burua gehiago ezagutzen irakatsi digu Startinnovak.

Guk hasieran detektatutako beharrak aldaketa klimatikoarekin zerikusia izan zuten. Ildo beretik, birziklatzearen ideia garatu eta hau egiten laguntzeko aplikazio bat sortu genuen. Horrela, birziklatzearen beharra asetzeko asmoz, denontzat eskura aurkituko duen plataforma bat egiten hasi ginen. Merkatu segmentuari dagokionez, alde batetik, arazo honi aurre egiteko asmoa duen edonor izango da proiektu honen laguntzaile. Bestalde, aplikazioa edonori irekia dagoenez, hau eskuratzen duen edonor ere izango da laguntzaile. Hori dena kontuan izanda, hona hemen gure proiektua zehazki ulertzeko aukera emango dizuen idazlana.